



Gasparrena (-a) *etxebizitza*

Aldaerak: Zalditurriagirre
Ahozkoa: Kásparrena / Kaxpárrena



43° 10' 43"

2° 35' 13"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Saldi-Yurri-Aguirre o Gasparrena... sita en la cofradía de Andicon de la Anteiglesia de Berriz, es de una vivienda compuesta de piso bajo con su cocina, cuarto y cuadras, y otro alto con su camarote y pajares,... ocupa con inclusión de la tejavana, horno y zaguan setenta y cinco y medio estados..."

DJE 5/2 or. (1881)

XVIII. mendean aurkitzen ditugu baserri honen gaineko lehen aipamenak Bizkaiko su-erroldean: *Gasparrena* (1704 eta 1745). Aldaketa gutxi jasan duen izena da honako hau, nahiz eta behin baino gehiagotan dokumentazioan *Zalditurri Aguirre* (1802, BAHF, A425/8) moduan ere agertu. Horrela jasotzen da, adibidez, jabego-eskrituran: *Saldi-Yurri-Aguirre* eta *Gasparrena* (1881, DJE, 5/ 2. or.). Dena den, XX. mendean *Zalditurri Agirre* desagertu, eta *Gasparrena* moduan bakarrik dokumentatzen da, 1967ko Udal-errolan kasu. Berriztarren artean, *Kásparrena* eta *Kaxpárrena* dira formarik erabilienak ahozko transmisioan.

Ez da etxe handia harrizko eraikin zahar hau, ez behintzat beste baserri batzuekin konparatzen badugu. Isurki biko teilatuaren azpian, pisu bi eta teilatupea ditu. Harlanduz egindako bi leiho ditu solairu bakoitzean, ganbaran izan ezik, bertan fatxadaren bertikaltasuna hausten duen hormigoizko balkoi zabala dagoelako. 2008. urtean egindako azken berriztatze-lanetan aldaketa sakona egin zioten, bizitza bikoa bihurtzeko. Etxe zaharrenari harlangaitza destali egin diote, atzean erantsita daukan eraikinaren antzera, eta horrek alde berriagoaren horma luzituekiko kontrastea handitzen du.

toponimia

Bestelako azalpenik behar ez duen etxe izan Gaspar pertsona izenez eta etxea adiera duen -ena atzizkia. Nahiz eta Bizkaiko deituretan -ena amaiera gutxi ageri, oso ugariak dira horrelako egitura duten baserriak baina berriagoak dira deitura eman dutenak baino.